

**Proiektuen deialdia / Komikien egonaldi gurutzatua**  
**Cité internationale de la bande dessinée et de l'image (Angulema)**  
**Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao (Bilbo)**  
**La Maison de la littérature (Quebec)**

**2022KO DEIALDIAREN OINARRIAK:**

**1. AURKEZPENA**

Quebeceko La Maison de la littérature, Cité internationale de la bande dessinée et de l'image eta Bilboko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroa den Azkuna Zentroa elkartu egin dira hiru komikigileri egonaldi bat eskaintzeko (bata frantziarra, bestea espainiarra eta bestea quebecarra izango da), Anguleman, Bilbon eta Quebecen, hurrenez hurren.

**2. XEDEA**

Egonaldi gurutzatuen programa hau Anguleman izango da lehenik (2023ko urtarrilaren 19tik otsailaren 22ra), eta, gero, Bilbon (2023ko otsailaren 22tik apirilaren 2ra) eta Quebecen (2023ko apirilaren 2tik 23ra).

Egonaldi bakoitzak jaialdi bat izango du barne (*Komikiaren Nazioarteko Jaialdia* Anguleman, *Gutun Zuria. Letren Nazioarteko Jaialdia* Bilbon eta *Québec BD Jaialdia* Quebec-en).

Bekaren irabazleei Angulemako Maison des Auteurs zentroan, Bilboko Azkuna Zentroan eta Quebec-eko Maison de la littérature zentroan egingo zaie harrera.

**3. DEIALDIAREN HELBURUAK**

Artista bakoitzak bere sorkuntza proiektua landuko du. Egoitzaren amaieran, serigrafian sorkuntza kolektiboa proposa daiteke. Egoitza kolektibo honek oraindik definitu gabeko sorkuntza ekoiztea edo aurkeztea ekar lezake.

Entitate bakoitzak, halaber, harrera programa bat antolatuko du, lantegiak, bilerak, elkarriketak edo bestelako jarduerak barne, gehienez ere egoitzaren denboraren % 30a.

**HARRERA-BALDINTZAK**

- Hiri bakoitzean ekipatutako pisu bat –bakarka edo partekatua– eskuragarri jartzea, eta, partekatutako ostaturak bada, barruan, egile bakoitzarentzako banakako gela bat.
- Hiri bakoitzean partekatutako lan-tailer bat eskuragarri jartzea.
- Egile bakoitzari 4.500 euro edo 6.000 dolar gordin ordaintzea, egonaldien iraupena estaltzeko.
- Medikua-aseguruak eta bestelakoak kontratatzea hautatutako egileen erantzukizuna da, ez beste inorena.
- Egileak edo egileek egonaldietara egindako joan-etorrien gastuak barnean hartuta daude.

**4. HAUTAGAIEN BETEBEHARRAK:**

Hautagaiak Maison des auteurs, Azkuna Zentroa edo Maison de la littérature zentrori bidali behar dute eskaera, bizi diren herrialdearen arabera. Erakunde bakoitzak hiru proiektu aurrez hautatuko ditu aurkeztutako artean. Azken aukeraketa hiru erakundeek egingo dute, eta hiru irabazleak aukeratu dituzte batera.

Egonaldiaren eskaera egiteko, hautagaiak bi urteko praktika artistikoa izan behar du gutxienez, eta honako baldintza hauetako bat bete behar du:

- Frantzian: frantsesa izan edo Frantzian bizi.
- Espanian: espainiarra izan edo Espainian bizi.
- Quebecen: quebecarra izan edo Quebecen bizi.

**6. EPEAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Inskripzioa egiteko epea deialdi hau argitaratzen

den egunetik, hau da, 2022ko uztailaren 20tik, 2022ko irailaren 4ra arte egongo da zabalik.

Eskabideak honako hauek jaso beharko ditu, PDF fitxategi bakar batean:

Egilearen biografia, bibliografia, egonaldi-esperientziak eta sorkuntzak adierazita; hautagaiaren obra artistikoaren laburpen adierazgarria; egileak proiektu honetarako duen motibazioa.

Epaimahaiak dokumentazioan jasotako sorkuntzen kalitatea baloratuko du, besteak beste.

Eskaerak formatu digitalean bidali beharko dira, PDF formatuan, helbide honetara:

Frantzian: [maisondesauteurs@citebd.org](mailto:maisondesauteurs@citebd.org)

Espanian: [deialdiak@azkunazentroa.eus](mailto:deialdiak@azkunazentroa.eus)

Quebec-en: [juliette.berton@institutcanadien.qc.ca](mailto:juliette.berton@institutcanadien.qc.ca)

Deialdiari buruzko erabakia 2022ko urriaren 28tik aurrera jakinaraziko da. Web orri honetan argitaratuko da: [www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus). Horrez gain, onuradunari zuzenean jakinaraziko zaio, emandako helbidean. Hautatutako pertsonak onartzen duela berretsi beharko du astebeteko epean, erabakia jakinarazten zaionetik.

Finkatutako epean adjudikazioa onartuz gero, adjudikaziodunak 10 egun balioduneko epea izango du, adjudikazioaren berri eman zaionetik hasita, dokumentu hauek aurkezteko:

- NANaren kopia (edo baliokidea).
- Egonaldia egiteko eskatutako egunetan libre egongo dela egiaztatzen duen sinatutako adierazpena.

## 7. AZKUNA ZENTROAK ESKAINTZEN DU

Dirua honela ordainduko da: % 80 egonaldiaren hasieran eta gainerako % 20a egonaldia amaitzean, betiere Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea S.A. zentroaren izenean faktura aurkeztu ondoren.

Deialdi honetan hautatutako proiektuaren pertsona edo erakunde titularrak hitza ematen du:

- hautaketa-batzordearen ebazpena onartuko duela,
- aurkeztutako proiektuan egindako edozein aldaketaren berri emango duela idatziz, eta komikiarekin eta ilustrazioarekin lotutako
- programazioaren inguruan Az-k egiten dituen jardueretan parte hartuko duela,

- deialdi honetan jakinarazitako epe eta baldintzetan garatuko duela proiektua,
- proiektua behar bezala jakinarazteko beharrezko informazioa eta agiriak aurkeztuko dituela,
- Azkuna Zentroaren logoa jarriko duela obraren aurkezpen- eta ustiapen-ekitaldi edo -erabilera orotan.
- Egoitzaren amaieran bukaerako memoria bidali.

## 8. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Parte-hartzaileak aurkezten dituzten proiektuen originaltasunaren eta egiletzaren erantzule dira, eta bermatzen dute haien gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak legez dituztela. Alde horretatik, bermatzen dute Az-k modu baketsuan erabiliko duela, eta berriaz salbuesten dute berme hori ez betetzeak zuzenean edo zeharka eragin ditzakeen kalte eta/edo galeren erantzukizunetik. Merkataritzako jarduerak egiteko erabilera berriaz bazter utzirik, Az-k hautatutako proiektuei lotutako informazioa (testuala, ikus-entzunezkoa eta grafikoa) erabili ahal izango du bere jardueren berri emateko. Osorik edo partzialki eta bakarrik edo bestelako edukiekin batera erabili ahal izango du.

Hortaz, hautatutako pertsonak Az-ri lagako dizkio eskubide horiek, legeak baimendutako gehieneko denboraz, mundu osoko esparru geografikoan, Az-ko jardueren bilduma-argitalpenak, liburuxkak edo katalogoak paperean eta euskarri digitalean argitaratzeko (web orria eta Az-k kudeatutako sare sozialetako profilak barnean hartuta).

Era berean, kontratistak onartzen du Zentroan izandako egonaldian sortutako idatzizko, ikus-entzunezko, argazkigintzako eta bestelako material guztiak Az Artxiboaren parte izatea, betiere hezkuntza- eta dibulgazio-helburuekin (inoiz ez irabazi-asmoeekin).

Hautatutako pertsonak berriazko baimena emango dio Az-ri bere izena erabil dezan egoki iruditzen zaion eran eta deialdi honen helburuen barruan.

## 9. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek baimena emango diote Az-ri beren izena, kargua, irudia eta, noiz edo noiz, ahotsa -Az-ko espazioetan egiten diren argazki edo bideoetan jasotakoak- erabiltzeko, geroko informazio-zabalkunderako edo sustapenerako. Hori guztia, beren

ohorerako eskubidearen aurka egon daitezkeen erabilerak eta aplikazioak kenduta, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak ezarritako moduan. Aurreko eremutik kanpoko bestelako erabilerak berariaz utziko dira baimen honetatik kanpo.

## 10. JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaileek onartuko dute deialdi honetan emandako datu pertsonalak Azkuna Zentroaren titulartasuneko fitxategian sar daitezzen -ondorio horretarako, Arriquirar plaza 4, 48010, Bilbo helbidean egoitza izanda-, deialdi hau eta haren administrazioa, fakturazioa eta/edo dokumentazioa kudeatu ahal izateko. Parte-hartzaileak bere lankideen datu pertsonalak ematen baditu, haien baimena jaso beharko du datu horiek Azkuna Zentroari jakinarazteko, helburu berberarekin.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko, mugatzeko eta eramangarriak izateko

eskubideez baliatu ahal izateko, posta elektronikoko mezua bidali beharko da [info@azkunazentroa.eus](mailto:info@azkunazentroa.eus) helbidera, mezuaren gaiari sarbide-eskubideak jarrita, eta, eranskin gisa, eskutitz bat -datuen titularrak sinatuta eta jakinarazpenak egiteko helbidea adierazita-, eta NANaren edo antzeko egiaztagiri baten kopia bat gehituta.

## 11. JURISDIKZIOA

Bi alderdien artean sor litezkeen gatazkak konpontzeko adiskidantzazko ebazpenik lortzen ez bada, Bilboko epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira, beren eskumenari berariaz uko eginda.

## 12. OINARRIEN ONARPENA

Deialdira aurkezte hutsagatik, parte-hartzaileek onetsi egingo dituzte oinarri hauek. Deialdi berezi honetatik kanpo daude artista AZkideak eta Azkuna Zentroko kolektibo egotziak.

Bilbon, 2021eko uztailaren 20an.

Sorkuntzari laguntzeko beste deialdi batzuk hemen kontsulta ditzakezu: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)